

Kontalaria: Euskal Herrian, oihana eta mitologia arras elkarri lotuak dira. Gaur, kontatuko dizuegun ipuina Iratiko oihanean iragaten da. Ipuinez ipuin, euskal mitologiaren pertsonaiak ezagutuko dituzue: laminak, Basajaun, Mari, Tartalo...

Tartalo

Kontalari 1: Iratiko oihanean, gizon itxurako erraldoi indartsu bat bizi zen. Tartalo izena zuen. Kopetaren erdi-erdian begi bakarra zuen. Harpe batean bizi zen eta ardi larruz janzten zen. Haragijale tripontzia zen Tartalo: egunero ardi oso bat jaten zuen, baina haren haragirik gustukoena jende haragia zen.

(Patxi eta Miren agertokian sartzen dira beren artaldearekin. Beren bidea xerkatzen balute bezala egiten dute.)

Behin, Patxi artzaina eta haren arreba Miren Iratiko mendietan galdu ziren. Iluntzean, bere artaldearekin, Tartaloren harpean sartu zen gaua han iragan nahiz.

(Patxi harpearen aitzinera heldu da.)

Miren: Uste duzu harpe horretan Tartalo erraldoia bizi dela?

Patxi: Nire iduriko harpea hutsik da.

Miren: Hala ere iduritzen zait harrabotsa entzuten dudala.

Patxi: Lasai! Segur naiz ez dela nehor! Entzuten duzuna gau-ainara dateke!

Patxi (irriz), bere ardiei mintzo: Pentsatzen dut segurean sentituko girela. Zer diozue?

Ardiak: Bbbai!!!! Bbbbai !!! Ongi lo egingen dugu!!!! Bbbbai!!! Bbbbai!!

(Harpean sartzean, Patxi Tartaloren parean da.)

Kontalari 1: Tartalok ikusi zituelarik, lehenik harritu zen baina gero poztu.

Tartalo: Hara hemen mutiko eta neska koxkorrak! Aspaldian ez dut jende haragirik jan! Ai! Zer bazkari ederra biharko!

Kontalari 1: Patxik, beldurrez dardarka, eskapatu nahi izan zuen baina Tartalok harri handi batez harpeko sartzea hetsi zuen...

Patxi (dardarkaz): Miren, begira ezazu non den aterabidea!! Nik alde honetan so egingen dut. Ados?

Miren: Ados, anaia, baina erran dizudan bezala Tartaloren etxea da. Arrazoi nuen...

(Patxik ihes egin nahi zuen baina Tartalok eraztun magiko bat ezarri zion erhi batean. Tartalo lo zelarik, Patxik burdina zorrotz bat sartu zion begian. Tartalo itsutu zen.)

Tartalo: Itsutu nauzu! Itsutu nauzu! Harrapatuko zaitut eta gordin-gordinik janen zaitut, muturzikin!

Patxi: Ez, ez! Ez nauzu harrapatuko! Ardien artean gordeko naiz!

Tartalo: Ha! Ha! eraztun magikoa erhian ezarri dizut! Horrek salatuko zaitu!

Patxi: Baina zer ezarri didazu eskuan? Eraztun magikoa?

Tartalo: Ha! Ha! Eraztun horri esker nonahi atzemanen zaitut.

Miren: Kasu, Patxi! Tartaloren istorioa ongi ezagutzen dut; haren eraztuna mintzo da, bai.

(irudi finkoa: kontalaria mintzo denean pertsonaiek ezin dute mugitu.)

Kontalari 2: Biharamun goizean, Tartalok harpeko sartzeko harri handia kendu zuen ardiak kanpora ateratzera uzteko. **(Ber denboran, ardiak leizetik ateratzen dira Patxirekin eta Mirenekin.)** Banaka, ardien bizkarra hunkitu zuen artzaina eta haren arreba eskapa ez zitezen. Baina Patxik eta Mirenek bazter batean zegoen ardi-larru bat bizkarrean eman zuten eta ardien artean kukuturik, harpetik atera ziren, Tartalo ohartu gabe.

(Kanpoan, artzaina eta haren arreba tira ahala lasterka abiatu ziren.)

Baina bat-batean erhian zuen eraztun magikoa entzun zuen.

Eraztuna (oihuka): Hemen naiz! Hemen naiz!!! (*3 aldiz?)

(Erraldoia, eraztunaren oihuek gidaturik, ondotik heldu zitzaion. Patxi arbolaren gibelean kukutua da eta Miren eskapatua.)

Tartalo: Harrapatuko zaitut! Harrapatuko zaitut! Laster ene aztaparretan izanen zira! Gordin-gordinik janen zaitut!

Kontalari 3 : Hatsanturik eta beldurraren beldurrez, hara non aintzira bat ikusi zuen Patxik. Harri zorrotz bat hartu zuen, eraztuna zuen erhia moztu eta uretara bota. **(Hori entzutean, Patxik eraztuna botatzen du).** Aintziraren hondotik eraztunak segitu zuen.

Eraztuna (oihuka): Hemen naizzzzzz! Hemen naizzzzzz!!!

Tartalo: Heldu naiz, heldu naiz!!!! Harrapatuko zaitut!!!

(Plast handi bat entzuten da.)

Kontalari 3: Igerika ez zekien eta han berean ito zen. Urpean, eraztuna isildu zen.

Patxi: Miren, non zira? Tartalo joan da, etxera sartzan ahal gira.

(Ardiek, Patxiren boza entzutean segitzen dute. Mirenek ere.)

Kontalari 3: Bere arreba ikusterakoan, Patxi artzaina arrunt lasaitu zen. Etxera itzuli zen, erhi bat gutiagorekin, baina bizirik.

(Denak agertokitik ateratzen dira.)